

| DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA | |
|---|--|
| Tratamenduaren izena | EUSKARA MAILA EGIAZTATZEKO DEIALDI IREKIEN KUDEAKETA |
| Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak | <p>HABEren Zuzendaritza Nagusia</p> <ul style="list-style-type: none"> Vitoria-Gasteiz kalea, 3; Donostia-San Sebastián. Telefonoa: 943002600 <p>Datuak babesteko ordezkaria (DBO)</p> <ul style="list-style-type: none"> Telefonoa: 945 018 511 Posta elektronikoa: dpd-dbo@euskadi.eus Komunikazio Gidan datuak ikusteko |
| Tratamenduaren helburua | Euskara-maila egiaztatzeke HABEk antolatzen dituen deialdi irekiak kudeatzea eta dagokien ziurtagiriak proposatzea. |
| Datuak gordetzeko epea | Mugarik gabe gordeko dira. |
| Tratamenduaren oinarri juridikoa eta legitimazioa | Azaroaren 25eko /1983 Legea, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako erakunde sorraraztekoa eta Euskaltegiak araupetzekoa. |
| Hartzaileak | Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, Udalei eta, hala suertatuz gero, justizia-organoei ere jakinarazi ahal izango zaizkio datu pertsonalak. |
| Eskubideak gauzatzea | <p>Interesa duen pertsona orok honako eskubide hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> Sarbidea: eskubidea tratamenduaren arduradunak egiazta diezazun zuri buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez, eta, hala bada, datuok eskuratzeko eskubidea. Zuzenketa: zuri buruzko datu pertsonal okerrak zuzentzeko eta osaturik gabe dauden datu pertsonalak osatzeko eskubidea, baita adierazpen osagarri bidez ere. Ezabatzea (ahazteko eskubidea): zuri buruzko datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea, honako egoeraren bat tartean denean: <ul style="list-style-type: none"> Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan. Interesdunak tratamenduaren oinarri den baimena erretiratu badu, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik. Interesdunak tratamenduari uko egiten badio eta tratamendurako beste legezko arrazoirik ez bada gailentzen. <ul style="list-style-type: none"> Legez kontra tratatu diren datu pertsonalak badira. Lege-betebehar bat betetzeagatik datu pertsonalak ezabatu behar baldin badira. Datu pertsonalak jaso badira 8.1 artikuluan aipaturiko |

informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian.

Zure datu pertsonaletarako edozein lotura ezabatzeko eskubidea, horiek ezabatzeko betebeharra badago.

• **Muga:** zure datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea, honako kasu hauetan:

◦ Datu pertsonalen zehaztasunaren aurka egiten bada, tratamenduaren arduradunak datuon zehaztasuna egiaztatzekeo adinako epe batez.

◦ Tratamendua legez kontrakoa bada eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egiten badu eta, ordainetan, haien erabilera mugatzeko eskatu.

◦ Arduradunak jadanik behar ez baditu datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

◦ Interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, eta arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunarenen gainetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

• **Eramangarritasuna:** zure datu pertsonalak erabilera komuneko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratuan jaso eta beste arduradun bati helarazteko eskubidea, baldin eta tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.

• **Tratamendu baimenduna:** Gainera, eskubidea izango duzu tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta zugar onorio juridikoak edo antzeko onorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea barne. Eskubide horiek tratamenduaren arduradunaren aurrean baliatzeko eskubidea daukazu (Datuen babesarekin lotutako eskubideak baliatzeko aukera eskatzeko eredu) Era berean, aukera daukazu edozein erreklamazio aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Agentziara, eta aurretik zure erreklamazioa egin ahalko duzu Datuak babesteko ordezkariaren aurrean (Datuak babesteko ordezkariari aurretiazko erreklamazioa egiteko eredu).